

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILLOPE

AGUR NEGUARI, ONGI ETORRI IHOTE BERRIEI

278

2020ko martxoa

TOKIKOM



Jarrai ezazu
Maillope Aldizkaria
Facebook orrian!

CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN BANDA ZABALEKO LAN-TALDEAREN LEHENENGO BILERA.

Joan den otsailaren 14an izan zen Banda Zabaleko Lan Taldearen lehen bilera, Cederna Garalur Elkaratek Antsoainen duen egoitzan.

Zuzendaritza-batzordearen ekimenez sortua, talde hau osatzen dute: Galoze, Leitza, Ultzama, Larraun, Esteribar, Sakanako Garapen Agentzia eta Denok Bat erakundeetako ordezkariak, Ibon Mimentzak (Elkarateko zuzendari-kudeatzailea) eta elkarateko Teknologia Berrietako teknikariak.

Cederna Garalur Elkaratearen banda zabala lantzen duen lan-talde berriak honako helburu hauek ditu: toki-erakundearen bitartez, Nafarroako Mendialdeko banda zabalaren eta mugikorraren benetako estaldura-egoera ezagutzera; banda zabalaren hedapen-motei buruzko zalantzak argitzea; administrazio-izapideak egitea; tokiko erakundeentzako kostuak eta, batez ere, Mendialdean udalen ekimenez banda zabalaren inguruan garatu diren hedapen esperientziak eta proiektuak partekatzea; tokiko hedapen-proiektuak finantzatzeko alternatibak bilatzea; eta ekintza bateratuko politika bat ezartzea goi-mailako erakundeei begira, besteak beste Nafarroako Gobernuari begira.

Lehenengo bileran, banda zabaleko estaldura eskaintzeko dauden hedapen-motak azaldu ziren; Nafarroako Gobernuak Banda Zabalerako Plan Zuzentzailearen barruan egindako jarduerak laburbildu ziren; eta toki-erakundeek adierazitako telefonia finkoko, mugikorreko eta Internetarako sarbideko konexio-arazoak partekatu ziren. Halaber, Urdazubik, Dantxarriak, Ibar-dinek, Errok edo Basaburuak eremu horietan konektibitatea konpontzeko egindako esperientziak partekatu zituzten.

Halaber, zenbait udalerriri estaldura emateko mugikorren operadoreek aurkeztutako proposamenak jorratu ziren; besteak beste, Larrauni dagozkionak. GUIFINET Fundazioak eskaintzen duen hedapen-eredu komunala

ere eztabaidatu zen. Eredu hori Erron, besteak beste, erabiltzen ari dira bertako Kontzeju guztiei estaldura emateko.

Proiektu horiek toki-erakundeek jorratu eta finantzatu izanak lotzen ditu, eta kostu handia euren gain hartu arren, aurrea hartzea erabaki dute bertako bizilagunek eten digitalean deskonektatuta ez uzteko; izan ere, lantaldeko kideek aipatutakoaren arabera, eten horrek landa-eremuetako eguneroko bizitza eta lana zailtzen ditu, eta, halaber, landa-eremuetako despopulazioaren arazoak larriagotzen du.

Lehenengo bilera hilabete edo hilabete eta erditik behin topaketa berriak egiteko konpromisoarekin amaitu zen, Elkaratek Nafarroako Gobernuaren aurrean ematen dituen urratsak ezagutarazteko.

Argibide gehiagorako:

Ibon Mimentza de Irala. Cederna Garalur Elkarateko zuzendari-kudeatzailea. Tel.: 600 44 11 70. Posta elektronikoa: imimentza@cederna.es

Cederna Garalur Elkarate

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGO X JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



04 ESKOLATIK MAILOPERA: Ibarberri eskolako inauteriak

06 ELKARRIZKETA: Larraungo Hazia.

11 PRINTZA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Ibarberriko Ikas Komunitatea.

19 KULTURA

22 ELKARRIZKETA: Josu Betelu.

24 KIROLA

27 KUXKUXEAN: Martxoko zorion agurrak.

28 PLAZATIK PLAZARA

30 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Sastraka, Beteluko Udala, Ondare Kultur Taldea, Agurtzane Altuna, Ainhoa Azpiroz, Andoni Tolosa, Ibarberri ikastetxea, Araxes ikastetxea, Agustin Saralegi eta Printza.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udala, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA



eskolatik mailopera

Ibarberri eskolako inauteriak

Gu Ibarberri eskolako 3. maila A taldeko ikasleak gara.

Otsailaren 14an eskolan inauteriak ospatu genituen, Lekunberriko inauteriei hasiera emanez.

Aurten Nafarroako Inauteriak gaia izan genuenez, Nafarroako herri desberdinetako pertsonaia eta dantzak ezagutzeko eta lantzeko aukera izan genuen.

Gu, 4. mailakoekin batera, Larraungo inauterietako pertsonaiez mozorroturik atera ginen: mutilak Landarrez eta neskak mutilaren mozorroa jantzita.

Haur txikiak Kaldereroz atera ziren eta Lantz herriko Txatxoek, Luzaideko Bolantek eta Tuterako Zipoteroek beraien dantzak eskaini zizkiguten.

Attezarko izan genuen desfilearen buru eta joaldunen joare soinuek eman zioten hasiera jaialdiari.

Kalejiran joan ginen herriko kaleak alaitasunez betez eta plazan dantza eginez eta merienda goxo batekin eskolako inauteriei agur esan genien.

Festak hurrengo egunean jarraitzen izan zuen Lekunberri eta iluntzean Attezarko erretzearekin batera, inauteriak datorren negura arte agurtu genituen.

3. maila A taldeko ikasleak



ZABORRA NON-NAHI

Lekunberriko EH Bilduk Toki-Alai Sagardotegia-ren atzealdeko eremu urbanizatuaren egoera agerian utzi zuen azken udalbatzan eta alderdiaren sare sozialen bitartez. Gero eta nabarmenagoa baita bertan pilatzen den zaborra.



ERLEZAINZA IKASGAI

Erlezaintza eta eztigintzari buruzko hitzaldia eskaini zen joan den hilean Larraungo AEK euskaltegian. Ekitaldiz betetako hilabeteak dira hauek eta talde txikia gerturatu bazen ere, oso adi entzun zituzten Felix Olaetxearen eskutik jasotako azalpenak.



FESTA ASTIZKO ATERPETXEAN

Astizko Aterpetxeak urteko festa ospatu zuen joan den otsailaren 8an. Ehun lagun baino gehiago elkartu ziren bazkarian eta ondoren, Fermin Balentzia, Lur Jota eta beste hainbat talderen kontzertuekin giro ederrean pasa zuten arratsaldea.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Luis Mari Larreta (Aldatz)

*Nafarroan barrena
Bardoak abesten
bai bai ala zebiltzek
baten eta besten
jarrai behar diagu
euskera babesten
hola jarraiko diau
guztiok amesten.*

*Rimaz betea zeok
mingainan azpia
eta emango diagu
dakigun guztia
gu babesten zebilek
Larraungo herria
ea lortzen diagun
bigarren zapia.*

Doinua: *Gizona da zoroa.*



Hurrengoantzako puntua:
Koronabirusakin a zer iskanbila

Oinak:
urdina, ezina,
zikina, berdina

“Harremanak kolektiboki landu nahi ditugu”

Ibarreko hainbat gazte uztailean hasi ziren eraiten Larraungo Hazia eta dagoeneko bere lehen fruituak ematen hasi da. Etorkizuneko Larraunen eragingo duen hazia izan nahi dute, bestelako eus-kara, genero berdintasun, sexualitate eta zaintza eredu bat izanen duena. Sugoï Etxarrik, Maider Baldak, Arantxa Balenziagak, Xanti Saigosek eta Leire Beteluk eman dizkigute HAR(RE-MANen hazitik hazten gara egitasmoaren inguruko azalpenak.

Nolatan sortu duzue Larraungo Hazia?

Arantxa: Mailope Gazte Asanblada desegin eta gero, Kinto Eguna antolatzen jarraitu genuen. Mantendu zen jarduera bakarria izan zen. Asanblada hartako gutxi batzuek eutsi genion urteroko antolaketa horri. Baina geure artean hitz egiten hasi ginen eta ikusten genuen Kinto Eguna oso jarduera puntuala zela eta jarraipen handiagoa izango zuen proiektu sakonago bat nahi genuela. Eta horretarako jende gehiago erakarri behar genuen.

Sugoï: Ikusten genuen jaitsiera bat izan zela eta Kinto Eguna antolatze-ko inertziak ari ginela aurrera egiten, baina bestalde, batez ere aurreko urtean bai Kinto Egunean eta baita Larraungo Egunaren bueltan. oso giro polita sortu zen. Inoiz baino gazte gehiago animatu ziren Larraungo Egunean parte hartzera, eta

“Oso ohituta gaude sexuan zer ez den egin behar entzutera, baina zer bai?”

ez bakarrik bazkarira, gazteengan aktiboki parte hartzeko jarrera ikusten zen. Barra momentu batean antolatu genuen, guk antolatutako jokoak ere oso ongi atera ziren... Beraz, giroa bazela ikusi genuen eta horri eutsi behar zitzaioela.

Eta udan deialdi bat egin zenuten...

Xanti: Bai, bilera ireki batera deitu zen uztailean. Ia hogeita hamar lagun elkartu ginen eta zer egin nahi genuen eta bakoitzak zuen iritziaz hitz egiten hasi ginen. Kinto Eguna antolatzeko elkartzen ginenak beti berberak ginen eta hori zabaldu egin behar genuela ikusten genuen. Larraungo Eguneko erantzuna ikusita horri jarraipena eman nahi genion. Jendea elkartu eta ekintza gehiago egin.

Larraunen kuadrila batzuen artean apenas dago harremanik, ezta?

Sugoï: Badaude espazio batzuk elkarrekin egon gaitzkeenak, baina ikusten dugu nahiko mugatuak direla. Hor dago mataderoa, edo Ilargiren bueltan ere elkartu gaitzke, baina egia da kuadriletan oinarritutako sistema dugula eta horretara mugatzeak aukerak kentzen dizkigula Larraunen dauden bestelako gazte interesgarriak hobe ezagutzeko eta beste harreman batzuk lantzeko.

Xanti: Nik uste kuadrilen artean dagoen konexioa edo tarteka batzea lortzen duten gauzak afizioak eta kirolak direla. Kirolaren edo musikaren inguruan kuadrila batekoak eta bestekoak elkartzen gara. Horiek horretarako aukera ematen digute.



Besteak beste sexualitatea modu positiboan lantzea du helburu Larraungo Haziak. Arg: Labrit

Zein ondorio atera zenituzten uztailean egiten hasi zineten bilera horietatik?

Maidier: Denon artean oinarri batzuk zehaztu genituen eta ikusten genituen beharrak identifikatu genituen, zer landu nahi genuen...

Sugoi: Ikusten genuen beharrezkoa zela inklusiboa izanen zen zerbait egitea. Gazte ezberdinak elkartuko zituen. Denok eroso sentiaraziko gintuzten oinarri batzuk zehaztu genituen: Euskararen alde egingo genuela, genero berdintasunaren eta aniztasunaren alde, komunitarioa (hau da, beste eragileekin elkarlanean arituko ginela eta ibar osoko ikuspegia izanen genuela) eta gustura egoteko eremu bat izatea, gauzak gustura egiten direnean askoz ere hobe ateatzen direlako.

Arantxa: Ongi pasatzeko filosofiarekin behar du izan, bestela berehala deseginen zela ikusten genuen.

Eta zeintzuk izan dira jorratu dituzuen lan ildoak?

Arantxa: Kezkatzen gintuzten edo landu nahi genituen gai batzuk atera ziren, eta horietako batzuk hautatu genituen lanean hasteko eta proiektua bideratzeko.

Maidier: Pentsatu genuen egokiena batzuekin hasi eta ondoren gainerakoak lantzea izanen zela.

Momentu honetan zenbat lagun zaudete?

Maidier: Zortzi. Ikasturte hasieran beherakada nabaritu genuen.

Arantxa: Nik uste talde motorea zazpi edo zortzi lagunek osatzen dugula orain, baina jende asko dago kanpoan edo lanpeturik dabilena, baina antolatuko ditugun jardueretan laguntzeko eta parte hartzeko prest dagoena.

Lan ildoak eta oinarriak zehaztuta, zein da proiektuaren helburua?

Sugoi: Harremanen eremua gaur



Hasierako bilerak bereziki jendetsuak izan ziren. *Arg: Larraungo Hazia.*

egungo gizartean asko ahazten zaigun gai bat dela ikusten dugu. Norberak bere buruan bakarrik pentsatzera eraman gaitu gizarteak, arrakasta pertsonalean bakarrik pentsatzera eta, askotan, ahaztu egiten zaigu gure oinarri-oinarrian dugun gauza bat, besteen beharra daukagula eta behar hori harremanekin asetzen dugu. Hori gizakion ongizaterako funtsezkoa da. Horregatik, harremanen gaia landu nahiko genuke. Oso gai zabala denez, bost lan ildo zehaztu ditugu.

Maidier: Genero berdintasuna, aniztasun sexuala, sexualitate positiboa, zaintza (denok behar dugulako zainduak izan) eta partaidetza soziala.

Arantxa: Harremanak kolektiboki landu nahi ditugu. Ikusten dugu gazteengan lotsak, beldurrak, errezeloak edota aurreiritziak daudela sozialki modu aktiboan parte hartzeko. "Nire iritziak ez dakit balioko duen... Agian hobe isilik gelditzen banaiz, hobe ez badut parte hartzen..."

Maiz aipatzen da gurean kosta egiten zaigula antolatzen diren jardueretan larraundarren parte-hartzea bultzatzea. Uste duzue hori izan litekeela arrazoa?

Sugoi: Bai eta horri modu sano batean aurre egin nahi diogu.

"Gazteak lasai eta bildurrik gabe hurbiltzera animatzen ditugu"



Gabonetan egindako puska-biltzan. Arg: Larraungo Hazia.

Genero berdintasuna ere aipatu duzue...

Sugoi: Dagoeneko badira berdintasuna eta sexu aniztasuna lantzen duten eragileak eta horiekin elkarlanean aritu nahiko genuke.

Arantxa: Bestalde zaintzaren gaia ere hor daukagu. Normalean haur eskoletan, zaharren egoitzen nahiz etxeko zaintzaren arduradunak emakumezkoak izaten dira. Ikusten dugu zaintza horri ez zaiola nahikoa balio ematen, ez dela lana kontsideratzen eta gainera rol hori emakumeek, alabek, ahizpek edo emakumezko etorkinek betetzen dutela. Errealitate horren inguruan hausnartu nahi dugu eta egunerokoan dauzkagun ohitura batzuk aldatzen hasi eta zenbait ardura gure gain

hartu. Eta gaixo, adindu edo haurren zaintzatik haratago, gure artean ere zein inportantea den ondokoa zaintzea.

Eta sexualitateari dagokionez zein behar ikusten dituzue?

Arantxa: Ikusten dugu ez dela lantzen norberak bere gorputzarekin nola sentitzen den edo zein muga izan ditzakeen. Eta sexualitatearekin antzekoa gertatzen da, ikastetxeetan gai horiek serioegi hartzen ez dituzun adin batean lantzen dira. Eta zergatik ez orain gure artean landu?

Sugoi: Oso ohituta gaude sexuan mugak non dauden eta zer ez den egin behar entzutera eta, hori beharrezkoa da. Baina zer bai? Horri buruz oso lanketa gutxi egiten da. Sexualitatea modu baikorren eta irudimenez, jokorako aukera emanez, landu nahi dugu. Konbentzita gaude "Zer bai?" hori ere lantzen baldin badugu arazo asko ekidingo direla ere.

Horiek guztiak lantzen hasteko egitaraua prestatzen ari zarete...

Maidar: Bai. Hiru hilabeteko egitaraua prestatzen ari gara. Martxoan hasi eta ekainaren hasiera arte iraunen duena, mahai inguru, tailer eta hitzaldiekin. Martxoaren 6an, arratsaldeko 18:30ean, "Los orígenes del patriarcado. Una aproximación a la discriminación histórica de las mujeres" hitzaldia izanen dugu Alliko Akelar lokalean, Equiltera Elkartearen eskutik.

Arantxa: Eta martxoaren 18an,

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

aitz
berri

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitziberalf@hotmail.com

19:00ean, Lekunberrin udaletxeko batzar aretoan, "Zaintza etikak: nola zaintzen dugu elkar?" mahai ingurua egingen dugu. Haur eskolan, zaharren egoitzan, eta etxez etxeko zaintzan dabilzan zenbait emakumezko elkartu nahi ditugu. Euren esperientziak gurekin partekatuko dituzte. EHUko bi irakaslek gidatuko dute mahai ingurua. Naiara Gorroñok eta Izaro Gorostidik ikerketa lana egin dute zaintzaren inguruan eta ondorioen berri emanen digute. Bestalde, apirilaren 3an, sortu berri den Hormak taldearekin beste jarduera bat egingen dugu LGTBI+ gaiari buruz..

Sugoi: Lehen ekitaldi horien ondoren, sexualitate positiboaren eta partaidetza sozialaren inguruko saio batzuekin jarraituko dugu. Eta Larraungo Eguna baino lehen, ikasturtea borobiltzeko bertako gazteen harremantzeko moduen hausnarketa orokor batekin bukatzea da asmoa.

Tartean, maiatzaren 16an Kinto Eguna ere izanen dugu...

Arantxa: Bai. Eta faltan sumatzen ditugu Kinto Eguna antolatzekeo ideia berriak. Horregatik, aurrez, martxoaren 13an, arratsaldeko 19:00etan, Kintinan egingen den bilerara jendea etortzea behar dugu. Gauza kolektiboa da denen artean egin behar duguna, egun polita da denok elkartzeko eta indartu behar dugula uste dugu.

Zer moduz joan dira orain arte egindako jarduerak?

Sugoi: Ongi. Azaroan afari eta kontzertu batekin aurkeztu genuen egitasmoa. Eta abenduaren 24an puska-biltzan ibili ginen Azpirotzen, Lezaetan eta Errazkinen eta ondoren, jasotakoarekin bazkaria egin genuen Uitziko elkartean. 20 bat lagun elkartu ginen eta esperantza dugu urtero egiten jarraitzea. Adin ezberdineko jendea elkartu ginen eta arratsalde osoa kantari pasa genuen. Normalean egiten ez dituzun planak dira.

Arantxa: Hori da helburua, gazteok gehiagotan elkartu eta gustura egotea. Egingen ditugun jardueretan parte hartzera gonbidatzen ditugu larraundarrak. Lasai eta bildurrik gabe hurbil daitezela, euren ekarpena egitera edo besterik gabe besteenak jasotzera, baina animatu daitezela.

Harremanetarako:
larraungohazia@gmail.com

lazko Larraungo Egunean Larraungo gazteek inoiz baino aktiboago parte hartu zuten. Arg: J.A. Garaikoetxea



M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saldexitxak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

Segurtasuna



●● Mikel Hernandez

Kaixo, Andrea!! Pasa den otsailaren 6az gozotik Zaldibarreko zabortegiko bi langile lurperatuta daude, zabortegiko lurra erautsi eta bi pertsona hauen gainera erori baitzen. Orduz gozotik, dena da alarma: Eibarren eta Errealaren arteko partida bertan behera geratu zen Eusko Jaurlaritzak baieztatu zuelako zabortegiaren airea ez dela garbia; behin eta berriro suteak daude zabortegian; gero eta irregulartasun gehiago aurkitzen ari dira... Esaten den bezala, hausnarketa edo neurri hauek guztiak *a posteriori* hartuak izan dira. Hau da, ezbeharrak gertatu ondoren hasi dira alarmak alde guztietatik pizten.

Baina bi langile hauen familiak pairatzen ari diren sufrimenduak, jada, ez du atzera bueltarik, ez eta bi langile hauen bizitzak ere. Zergatik ez zabortegiaren egoera aurrekusi eta neurriak hartu? Zergatik ez segurtasun plan egokia eta baldintza onak ezarri horrelako istripu larria gertatu baino lehen? 2015ean epai batek ohartarazi zuen ez zekitela zein hondakin zeuden zabortegian, ez eta zein egoeratan. Bestalde, zabortegiaren kontrola eta araudia betetzea Eusko Jaurlaritzaren ardura izanda, are larriagoa da zabortegiak kalifikaziorik baxuena jaso izana Administrazioaren aldetik, ingurumenaren zaintzari dagokionez.

Hortaz, ezin uler daiteke baldintza txarretan edo prekarietatean oinarrituta dauden lanpostu nahiz guneak ezer pasako ez balitz bezala funtzionatzea. Ezer ez da gertatzen, gertatzen den arte. Eta orduan hasten dira ardurak, barkamenak, mobilizazioak arduradunen aldetik... Tamalgarria da benetan hainbesteko arriskua dagoen toki batean horrelako gauzaren bat gertatu behar izatea neurriak hartu behar izateko. Zergatik ez neurriak *a priori* hartu? Ez dakit zein izango diren bi langile hauen familiei emango zaizkien azalpenak, baina benetan lotagarria iruditzen zait Zaldibarren gertatu dena. Zein iritzi duzu gertakari honen inguruan, Andrea?



●● Andrea Etxarri

Kaixo, Mikel! Egia da Zaldibarko zabortegiko ezbeharrak gauza asko hausnartzera eraman gaituela. Zuk esan bezala, askotan zerbait larria gertatu arte ez da neurri nahikorik hartzen, ez zaio garrantzirik ematen prebentzioari, ezta zalantza dagoen kasuetan hori ebatzi arte jarraitzeari ere. Pentsatu gabe bertan pertsonak lanean daudela eta utzikeriagatik edo ardura faltagatik buelta eman ezingo zaion gertaera baten aurrean egongo gara. Erabakiak *a posteriori* hartzeko ohitura dago saihestu beharrean, ekartzen dituen mina, amorrua eta erruarekin.

Batetik, zaborren kudeaketa Verter Recycling enpresak zeraman. Nire ustez, guztiok sortzen dugun zaborren kontrolguneak publikoak izan beharko luke eta etengabeko kontrola egin beharko litzaiteke zaborra kudeatzeko moduaren eta baita zabortegiaren segurtasunaren inguruan ere. Eta esan bezala, ez da nahikoa jakinarazpena bidali edo isun bat jartzea arrailak daudela esanez, beharrezkoa da aktibitatea gelditzea beharrezkoa ikusiz gero, eta gelditu arte amorerik ez ematea, benetan honela dela ziurtatzea, benetako "ardura" hartzea.

Bestetik, erorketaren inguruan sortu diren hipotesiak ezberdinak dira, haien artean, 2008an Ermuako ingurabideko obretan egindako lur mugimenduak eta ondoren egondako euriteak, zabortegiaren egitura bertan egon daitezkeen akatsak edota betetze eritimoa azkarregia eraman izana (zabortegiko geruzak ez egonkortzea, berez 35 urtetan betetzeko pentsatua zegoen zabortegia 13tan beteko zen). Gainera, amiantoaren zuten hondakinak ere baziren, eta honetan erreparatu gabe (edo horrela zela jakin gabe) bertara bidali zituzten erreskate taldeak inolako babesik gabe, berriz ere, erabakiak arinegi hartzearen ondorio bat.

Nik guzti honetatik ateratzen dudana hausnarketa honakoa da: lehentasunak garbi izan behar ditugula; pertsonak eta bizi garen lekua (planeta bera) zaintzea. Bi hauek zaizkizue gero zorigaitza gainera erortzeari *a priori*-ko euste-horma sendoa jartzen ariko gara.



Herentziaren inertzia

"Gu gazteok gaur gabiltza mundu galdu honetan, gerra bat barruan degula zer egin jakin gabe. Gurasoen mundu aldrebes hau ez dugu onartzen, diruaren morroi izaten erakutsi digute!" -dio Benito Lertxundiren "Gure bide galduak" kantak.

Morroi izatera bultzatu dutenari, lasai egoteko eskatzeak... zer pentsa ematen du. Nori komeni zaio egoera hori? Nola egongo da ba lasai morroia? Mundu justua lortzea da bere behar nagusia!

Egun bizi dugun gizarte antolaketa, beti horrelakoa izan dela sinetsarazi digute. "Horrela funtzionatzen dute gauzek, zer egingo diogu ba!?" Besoak gurutzatuta gelditu ez behintzat!

Otsailean ere, eskaintza zabala eta askotarikoa izan dugu Printzan. Jarrai dezagun bidea egiten!!!



Fermin Balentzia

Nafarroako kateei buruz bakarrik ez, bere bizitzako hainbat kateri buruz ere hitz egin eta kantatu zигun Ibargoitiko musikari handiak. Bere bizipen eta sentimenduek hunkituta

utzi gintuzten eta aurrera begirako inpultso ederra eman zигun bertan elkartu gineno. Eutsi horri Fermin!!

Lekunberriko ihoteak

Enki eta Marianitox Blairi esker, giro ederra izan genuen larunbat iluntzean. Musikari interesgarri hauen kontzertuek agerian utzi zuten bertan daukagun sorkuntza maila altua. Alde batetik, Enkiren hitz zorrotz eta sakonak; eta bestetik, Marianitox Blairen musika alai eta dantzagarria. Konbinaketa bikaina.

Peru Galbete

Peru Galbetek bere azken proiektua aurkeztu zигun Printzan. Behin uholde batek familia argazki analogikoetan utzitako arrastotik, musikari bezala zuzeneko formatura bultzatuta, musika, ikus-entzunezkoa, lekua bera, bere egin zituen. Material aldakor eraldatuan sartzera gonbidatu gintuen.



ZURE ARGI IZPIAK OSATUKO DU

PRINTZA

AIISIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

Euskara Zerbitzuak eskualdean antolatzen diren haur eta gaztetxoentzako aisialdiko jardueratan sortu daitezkeen lanetan aritzeko begiraleak kontratazeko lan poltza bat osatu nahi du.

Honako hauek dira parte hartzeko baldintzak:

- 16 urte eginak izatea
- Euskara jakitea: C1 maila edo baliokidea.
- Aisialdiko jardueratan aritzeko formakuntza izatea edo lanean aritu izana ere aintzat hartuko dira.

Lan poltsan izena eman nahi baduzu, jarri harremanetan Euskara Zerbitzuarekin: 948 50 44 00 telefono zenbakian edo larbeleareuskaraz@iparmank.eus e-postaren bitartez.

IKASTAROA ESKAINIKO DU CEDERNAK MARTXOAREN 10EAN ETA 17AN

Cederna Garalur Elkarteak "Nola egin Ogasunarekin egin beharreko tramiteak online ziurtagiri digitalaren bidez eta ordainagiriak diseinatzeko ikastaro praktikoa eskainiko du datorren martxoaren 10ean eta 17an (09:30-13:00), Lekunberriko Plazaola Geltokian. Ezinbestekoa izanen da Excel programa instalaturik duen ordenagailu eramangarria ekartzea (Mac ordenagailurik ez).

Bestalde, gogoratu autoenplegurako laguntza eskaintzen duela Cedernak buruan duzun ideia aztertu, esku artean duzun proiektua garatu eta enpresa sortu, edo martxan duzun jarduera sendotzeko. Ikastaroan izena emateko edo harremanetarako: 617 609 328 / mendialdea@cederna.es

PLAZAOLA BIDE BERDEAK ZATI BERRITUA DU MUGIRON

Plazaola Bide Berdeko 700 metroko zati berria inauguratu zen joan den hilean Mugiron. Egokitu den zati horri esker orain arte Bide Berdetik Mugiroko herrigunera igotzeko zegoen aldapa eta eskailerak saihesteko aukera izanen dute erabiltzaileek. Berritze lan horiek ezinbestekoak izan dira irisgarritasunaren mesedetan. Gainera, bide hori gakoa izanen da Eurovelo-1 sarean, Larraundik datorren Bide Berdea Latasarekin lotzen baitu. Beraz, Plazaolak eskaintzen duen aukera berriaz gozatzeko aukera izanen da hemendik aurrera Mugiro aldean.



LEHEN SEKTOREA JOMUGAN



Cederna Garalur Elkartearekin batera lehen sektoreari buruz egindako lehen diagnostikoaren emaitzen berri emanen dute hainbat udalek hila-bete honetan. Mainer Niso izan da dinamika martxan jartzearen arduraduna. Ekoizleei egindako inkestaren bitartez diagnosi bat egin da udalerriz udalerriz bertako produktuen ekoizpen, esplotazio eta komertzializazio ereduak eta ekoizleen iritziak jasotzeko. Larraungo Udalak martxoaren 10ean egingen du diagnostikoaren emaitzen berri emateko bilera, arratsaldeko 18:00etan, udal-etxean. Bileratik irekia izanen da eta aurrera begirako lan-taldea sortuko da. Helburu nagusia bertako produktuak balioan jarri eta komertzializazio sare motzak sortzea baita. Amair Unzueta teknikari berriak hartuko du orain Mainerren lekukoa. Araizko Udalak ere lehen sektorearen gaineko lan mardula egin du. Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean egindako Araizko ekoizpenaren eta lur bankuen inguruko ikerketa lana aurkeztuko da martxoaren 17an, arratsaldeko 17:00etan Araizko udal-etxean. Eta martxoaren 28an, 11:30ean, Cedernak egindako diagnosiaren emaitzak aurkeztuko dira. Ekoizleei ez ezik, komertzio langile, ostalari eta herritar guztiei zuzendutako bilerak izanen dira, denon ardura delako lehen sektorea babestea, kontsumitzaile gisa zuzenean eragiten baitigu.



LARRAUNDARRAK ETORKIZUNERA BEGIRA JARRI DITU PROZESU PARTE-HARTZAILEAK

Larraungo Udalak parte-hartze prozesu bat jarri berri du martxan. Joan den hilean Allin, Astitzen eta Larraungo udaletxean aurkezpen bilerak eskaini zituen. Hurrengo pausua galdetegien banaketa izanen da. Hiru galdetegi mota banatuko dira (herritarrei, eragileei eta Kontzejuei zuzendutakoa) eta gaiz ezberdinen inguruan galdegingo da: kultura, euskara, bertako bizitza soziala, enplegua, azpiegiturak... Prozesuaren helburua Larraungo herritarrek bertako egoera sozio-kulturalari buruz egiten duten diagnosiaren eta hori biziberritzeko aukeren inguruan hausnartzea da. Gainera udaletxe zaharren eraikinak nahiz udaletxe berriko azken solairuak eskaini ditzakeen aukerak ere aztertuko dira. Inkesten bitartez bildutako informazioarekin diagnosis osatuko du Udalak eta bertatik ateratako ondorioekin jarritako erronkak ezagutzera emanen ditu. Eta azkenik, maiatzaren hasieran, elkarrekin hausnartzeko mintegia egingen da, lan ildoak eta ekintza proposamenak lantzeko. Maiatzaren bukaeran amaituko den prozesua Aztiker Soziologia ikerguneko teknikarien laguntzarekin batera bideratuko da. Herritarrek etorkizunera begira jarriko dituen hausnarketa prozesu kolektiboa izanen da.

ETXEBIZITZA BEHARRAK EZAGUTZEKO GALDEKETA

Guztiz anonimoa izanen da eta martxoaren erdialdera arte izanen da inkesta egiteko aukera. Bete-luko Udalak bertako nahiz inguruko herritarrek dituzten etxebizitza beharrei buruzko informazioa eskuratu nahi ditu online galdeketa baten bitartez. *Etxebizitza aukera falta dela uste duzu? Zein motatako baldintzak betetzea gustatuko litzaizuke? Zein motatako etxebizitza?...* Halako datuak biltzen saiatuko da udala. Datu horiek aztertu eta gero, epe motz-ertainean gazteek bertan bizitzeko aukera izan dezaten du helburu.

Bete ezazu zure inkesta: <https://labur.eus/qsTWk>

ALDARTE ONEAN JARRAITZEN DUTE LARRAUNDARREK

Maria Eguzkiza eta Saioa Berekoetxeak Nafarroako txapelkun izatea lortu dute nesken Nafarroako Pala Txapelketako kadeteen mailan eta jubentzetan ere txapela jantzi zuten Maddi Galarzak eta Mainer Saralegik. Mutiletan berriz, Iñigo Gurrea izugarriko denboraldia egiten ari da, Malerrekako senior mailako txapelketa irabazi baitzuen Leitzako Txoperenarekin batera. Eta Oinatz Iriartek martxoaren 7an jokatu du Zizurko lau t'erdiko finala. Eguzkiza eta Balda atetan gelditu ziren, finalurrekoa galdu eta gero. Bestalde, martxoaren bigarren asteburuan jokatu dira Mendialdeko binakako txapelketako finalak.



MAILOPEKO URTEKO BATZAR OROKORRA EGINEN DA MARTXOAREN 13AN

Mailopeko bazkide zara? Edo Mailopeko batzordeetan parte hartzea gustatuko litzaizuke?

Datorren martxoaren 13an, ostirala, arratsaldeko 19:00etan, Mailope Kultur Elkarteak urteko Batzar Orokorra egingen du Araizko udaletxean. Bertan, 2019ko kontuak eta 2020. urteko aurrekontua aurkeztuko da eta *Mailope.eus* atariaren eta Mailope Aldizkariaren Facebook orrialdearen nondik norakoak azalduko dira. Horrez gain, Zuzendaritza taldea berrituko da. Dagoeneko lekuko hori hartzeko prest dauden zenbait Mailopekide badiugu, eta batzarrean bazkideei aukera emanen zaie Zuzendaritza taldeko nahiz gainerako batzordeetako kide izateko. Beraz, ez galdu proiektuan parte hartzeko aukera!

Jaio, hazi, ugaldu, hil

Etengabe errepikatzen den zikloa. Agian laugarren solairuan bizi den bizilagun horrek, ez du oinordekorik izan, eta zikloa eten duela pentsatzen ari zara eta irakurtzen ari zaren hau ez dela egia. Arrazoi duzu ikuspuntu biologikotik. Arrazoi duzu. Orduan zergatik egin dut zenbait lerro gorago baieztapen hori? Hori delako, esan zidatena, hori delako denoi esaten digutena eta hori delako gaurko egia. Guretzat sortu duten teoria, faltsua edo ez, hau da gaur egun dakiguna.

Baina niretzat, teoria faltsua da, ez gara jaio, hazi, ugaldu eta hiltzen. Agian erokeria da horrelako teoria handiaren kontra egitea. Harroputze-gia naiz horrelako teoria bat salatu eta epaitzegatik. Agian hau behin eta berriz azaldu didaten irakasleak oraintxe bertan nire espediente akademikoa eskuan dutela, gainditu ditudan azterketa guztiak balio gabetu nahian dabilta. Edo agian behin baino gehiagotan gertatu zaidan bezala, urte batzuk barru hau irakurri eta ergel hutsa naizela pentsatuko dut. Auskalo.

Baina arriskatu egingo naiz. Hasteko eta nire defentsan esango dudana azken gauza da, lehen eta azken puntuekin ados nago, jaio eta hil egiten gara. Sinplea da oso eta ezin da horrelako egia bat ezeztatu.

Baina tarteko biak, hazi eta ugaldu bai, txikiak gara eta heldu bihurtzen gara, eta espezieak (ez denak, ezta modu naturalean ere) ez dira bukatzen eta, behin eta berriro birsortzen dira, zikloa betez. Baina haztea eta ugaltzea ez dira bakarrik modu biologikoan egiten, modu



Arg: Unsplash

soziala, modu espiritual, modu intelektuala.. hor daude edo zeuden. Zeren azkenaldian, hazi nahiz ugaldu kontzeptuak (garapenarekin sendo loturikoak biak) gutxi jorratzen dituzu, ez diot larrua gutxitan jotzen dugula edo babes neurri gehiegi erabiltzen dugula "jo" bitartean. Benetan sailkatzen ditut biak gizakiaren ezaugarri nahiz aurrerapen handien artean. Baina onartu beharra dago lehen gure hazkuntzaren eta hezkuntzaren oinarriak gure garunak zirela eta orain azazkalen hazkuntza edo Instagrameko jarraitzaileen zenbakiaren hazkuntzan interesatuagoak gaudela. Lehen Platon, Aristoteles edo Einstein zirenak, orain Rosalia, Rubius eta Dulceida direla.

Literatura, musika, artea, politika, pintura, eskultura, kirola, eder-

tasuna, zientzia... denak balioesten ditugu, ezereztu eta modu bortitzean tratatzen ditugu, errebeldeak, basatiak garelako nahi duguna egin eta askeak izateko, tolerantak. Kontura gabe horiek direla hain zuzen ere askeak egiten gaituztenak eta guk geuk bortxatzen dugula gure askatasun behar hori horrelako jarrekin. Dirudienek ahaztu egin zaigu sareak harrapatzeko, eusteko, heltzeko... diseinatuak izan zirela eta hori da hain zuzen ere askatasun hitzaren antonimoa. Hori bada gure hazkuntza eta ugalkortasun gaitasunek ekarriko diguten etorkizuna, uste dut naturaren bi kontzeptu hauek dudana jartzea zilegi den zer-bait dela.

Hortxe ba nire teoria berria, garapen izpiak deuseztatzen dituen teoria. Jaio, konektatu, hil.



luze

Leire Aranburu

Minak, gaixotasunak eta emozioak, bat eginda

Umetan gaixotzen nintzenean, medikuarenera eraman, ohean egun pare pare egon eta botikaren bat hartuta, berriz ongi sentitzen nintzen. Horrez gain, betiko kolpeak jolasten eta zauri txikiak. Baziren, hala ere, noizean behin izaten nituen buruko minak. Eta hauen jatorria orain dela gutxi arte ez dut ulertu.

Gaztetan gaixotasun arinak ohi-koenak badira ere, heldutasunean, aldiz, beste min eta gaixotasunak agertzen zaizkigu askori. Zahartzen ari delako gorputza ote? Bizkarreko, gerriko edo beste min kroniko handiak, fibromialgiak, artritisak, migrañak, urdaileko arazoak eta baita hainbat alergia zein gaixo autoimmuneak, beste askoren artean, nozitzen dituzte heldu askok. Egia esan, zerrenda luzea izan daiteke. Gaixotasun edo min hauek epidemia bihurtu dira geure gizartean baina maiz hauen benetako jatorria ezezaguna izan ohi da. Hauen aurka, medikuek erabiltzen dituzte botikak eta tratamendu desberdinak, batzuetan bortitzak baina, sarritan, ez dute arazoa guztiz konpontzen, gehienez sintomak arindu. Gainera, hainbat kasutan albo ondorio kaltegarriak ekar ditzakete eta beranduago min berriak agertu. Halaber, gaixo hauek zenbaitek, medikuntza eta terapia alternatiboak edo ez horren bortitzak erabiltzen ditu. Askotan hobekuntza nabaria izaten dute, beste askotan hobekuntza txikia izaten da.

Min eta gaixotasun kroniko hauek dituzten askok bere kalba-



Arg: Unsplash

ria arindu nahian mediku, terapia eta sendabide batetik bestera pasa ditzakete urteak, batzuetan hobeto, beste batzuetan okerrago. Egun, dena den, "gaixoen" eta "gaixotasunen" kopurua hazi eta hazi ari da etengabe. Esaterako, Espainian milioi bat pertsonak pairatzen omen dute fibromialgia datu ofizialen arabera, baina horren bikoitza edo hirukoitza izan daitezke benetako zenbakiak. Gainera, gaixotasun hau pairatzen dutenen artean %85 emakumeak dira. Gaixotasun honez gain, lehen aipatu ditudanak pairatzen dituztenak hartzen baditugu kontuan, hainbat milioi "gaixo" kontabilizatzen dira Espainian. Ara-

zo handi honi medikuntza ofizialak ez dio aurkitzen irtenbiderik. Hori bai, medikuntza eta farmazia enpresentzat negozio ikaragarri handia suposatzen du. Gero eta botika gehiago, gero eta ekipamendu berezi eta garestiagoak azterketak egiteko.

XIX. mendearen bukaeran, baziren horrelako gaixotasunak psikosomatikoak direla defendatzen zutenak, alegia, sustrai psikologikoko gaixotasunak direla. Baina hau ez da kontuan hartu izaten, kasu gutxi batzuetan salbu. Alegia, gure emozioek gure osasunean joka ditzakete paper oso garrantzitsuak. Izan ere, eta zalantzarik gabe, indar handia dute inkontzientean pilituta dauden emozio negatiboen. Txiki-txikitik isilarazi gaituzte eta gorde izan ditugu maiz, amorruek eta haserreak, minak eta tristurak. Eta hauek gorputzean daude ondo gordeta, zapalduta baina irteteko beharrez; giltzapean dauzkagu geure kontzientziatik aparte. Horregatik, psikoterapia laguntza handia izan daiteke esandako minak arindu, hobetu edo "sendatzeko", pertsonak poliki-poliki aurkitzen dituelako gordetako emozioak eta bidea ematen dielako kanpora ateratzeko. Psikiatra ezagun batek, XX. mendearen hasieran horrela idatzi zuen: malkoek adierazten ez dutena, gorputzak adieraziko du beranduago. Eta hor egon daiteke min eta gaixotasun kroniko zenbaiten sustraia eta konponbidea.



Ibarberriketan: jolasean, ikasten eta berriketan aritzeko txoko berria

Ibarberri Ikastetxeak pauso berri bat emanen du herritarrek Ikas Komunitatera hurbilarazteko saiakeran.



Manu Franco Ibarberri Ikastetxeko gurasoa da eta aktiboki parte hartzen du Ikas Komunitatean. Berak egin dio egitura sofa berriari. Arg: Labrit.

Gogoan duzue Eguberrietan Olentzerok eta Mari Domingik oparitutako sofa koloretsua? Bada, argitu dugu zein erabilera izanen duen. Herritarrek ikastetxean parte-hartzeko txoko berria sortu da sofa horren inguruan, *Ibarberriketan*. Bertan eserita ikasleen tertulietan, jolasetan eta jarduera ezberdinetan parte hartzeko nahiz berriketan aritzeko aukera ezin hobea eskeinuko duena. Pixkanaka bertatik gero eta jende gehiago partatzea da helburua.

Datozen aste hauetan Ibarberriko ikasleak kalera irtengo dira eta

egitasmoaren berri emanen diete herritarrei. Eta bai, sofarekin eta guzti aterako dira, horretarako egitura ezin hobea sortu baitu Ibarberriko gurasoa den Manu Francok: *"Kuxinentzako egitura falta zitzaien, aurrez halako beste bi eserleku eginak nituen eta kasu honetan gurpilak jarri dizkiogu erraz mugitu ahal izateko. Ahal dudan neurrian ikastetxean dugun Ikas Komunitate polit honi laguntzen saiatzen naiz. Talde interaktiboetan parte hartzen dut, afizioz magoa ere banaienez txikienekin saioen bat ere egin*

du eta tarteka hurbiltzen naiz. Zenbait gurasori ezinezkoa zaie lan kontuengatik parte hartzea, baina uste dut beste askok posible dutela eta ez direla parte hartzera animatzen. Ikasleekin egotea baino ez da. Ni ez naiz ia euskaraz egiteko gai eta hori ez da eragozpena. Nik herritar guztiak animatuko nituzke behin bada ere proba egitera!"

Ikastetxeko sarreran da dagoeneko sofa berria. Bertan, hilabete honetako egitasmoaren berri eman digute Nahia Galarzak (10 urte), Eider Jakak (5 urte), Yanua Lourido (11 urte), Beñat Izagirrek (11 urte) eta Egoi Apezetxeak (5 urte).

Nolatan ekarri zuen Olentzerok opari hau?

Nahia: Olentzerok kuxinak ekarri zigun eta gero guraso bati gurpildun egitura egiteko eskatu genion. Eskutiz bat ere utzi ziguten Olentzerok eta Mari Domingik, azalduz sofak Ikas Komunitatea zabaltzen eta aberasten lagunduko zigula.

Sofa hau ikastetxeko sarreran jarri duzue. Gurpilak zertarako jarri dizkiozue?

Egoi: Paseo bat ematera joateko!

Eta nora joanen zarete?

Beñat: Lekunberri eta Larraungo herrietara.

Yanua: Kalera atera nahi dugu Ikas Komunitatea ibar osora zabaltzeko eta eskolan egiten duguna kanpoan erakutsi nahi dugulako.

Eta horretarako zein ideia dituzue?

Yanua: Argazki-albun bat sortzen gabiltza eskolan egiten ditugun jarduera ezberdinen argazkiekin. Horrela jendea sofan esertzen denean gure eskola zer egiten duen berezi azalduko diegu eta ikastetxera etortzera animatuz gero zein jardueretan parte har dezaketen ikusteko aukera izanen dute.

Herritarrekiko harremana sendotu nahi duzue...

Beñat: Bai, komunitateko kide ezberdinekin harreman berriak sortu nahi ditugu. Eta horretarako sofarekin batera elementu ezberdinak erabiliko ditugu.

Eider: Bost urtekoen gelako ikasleok panpinak, txontxogiloak, ipuinak eta margoak erabiliko ditugu, herritarrek gurekin margotu edo ipuinak irakurtzeko.

Yanua: Agian talde interaktiboetan egiten ditugun ariketak kalean egiten ditugu saio horiek nolakoak diren ikus dezaten. Edo agian tertulia bat ere egin daiteke ipuin motz batekin.

Beraz Ikas Komunitatearen baitan egiten dituzuen jarduera ezberdin horiek kalean egiten dituzue jendeak parte har dezan?

Nahia: Bai eta ezagutzen gaituzten jakin nahi dugu, Ikas Komunitatea zer den galdetu nahi diegu eta ez baldin badakite guk geuk azalduko diegu.



Nahia Galarza, Eider Jaka, Yanua Lourido, Beñat Izagirre eta Egoi Apezetxea. Arg: Labrit.

Zaila delako hurbiltzea zer den ez badakite! Hori ere izanen da egun horietan egiten ditugun irteera horien helburua.

Egun eta toki ezberdinetan egonen zarete...

Yanua: Bai, oraindik egunak zehaztu gabe ditugu. Gozatzeko egunak izanen dira eta ikustarazteko ikastetxera etortzen direnei eskatzen dieguna ez dela horren zaila.

Argazki-albun horretan zein motako jardueren argazkiak aurkituko dituzte?

Beñat: Maratoi ortografikoa, talde interaktiboa, tertuliak...

Tertuliak nola egiten dituzue?

Nahia: Liburu bateko orrialde batzuk irakurtzen ditugu eta ondoren, bi talde edo gehiagotan ulertu ez duguna argitu eta gure iritzia ematen dugu. Eta Eider eta Hegoiren kasuan, txikienek egiten dituzten tertulietan irakasleak ipuin motz bat irakurtzen du eta ondoren tertulia egiten dute ipuin horren inguruan.

Eta egiten duzuen jarduera guztietatik zein duzue gustukoen?

Yanua: Talde interaktiboak.

Zergatik?

Yanua: Gurasoak bi orduz gurekin egotera etor daitezkeelako. Ariketak gurekin batera egiten dituzte eta entretengarriagoa egiten zaigu.

Beñat: Lan gehiago egiten dugu eta hobeto portatzen gara! [Kar, kar]

Egoi: Bihar pasata nire ama etorriko da!!

Eta gustuko duzue?

Egoi: Bai!

Eider: Nik ere!

Beñat: Baina beti gurasoak etortzen dira eta gainera beti guraso berdinak! Jende gehiago animatu nahi dugu. Horretan saiatuko gara egun hauetan.

Beraz, kale erdian kolore biziko sofa batean esertzeko gonbita egiten badizuete ez egin atzera eta probatu!

Ikas Komunitateko jardueretan parte hartu nahi izanez gero jarri harremanetan: 948 504 210.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

Zer egiten duzu zuk
berdintasunagatik?

Batu zaitez

#Martxoak8

Instituto
Navarro
para la Igualdad



25 Aniversario - 1995-2020

Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



ESKUALDEA

Martxoa: Emakumearen Hilabetea

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, hilabete osoko egitaraua antolatu du Larraungo Berdintasun Mahaia, Larraungo eta Lekunberriko udalen, Ibarberri ikastetxearen eta hainbat herri mugimendu eta elkarteren laguntzarekin.

Larraungo Hazia taldeak bina hitzaldi antolatu ditu eta gurean sortu berri den Horma taldeak, feminismoaren gaia landuko du LGTBI+ kontzeptuen inguruko gogoeta egiteko antolatutako bigarren Gintonadan. Antzerkia, zinea eta pintxo dastaketa ere izanen dira baina zalantzarik gabe egun esanguratsuen martxoaren 8a izanen da. Aurten, Beti Kozkorren eta Larraungo Pilota Eskolaren laguntzarekin emakumezko kirolariei tartea egin diete eta hainbat partida antolatu dituzte. Eguerdiko hamabietan, manifestaldia egingen da Bertso Eskolako kideen parte-hartze bereziarekin batera.

M 6 (Alliko Akelar Elkarte - 18:00): "Los orígenes del patriarcado. Una aproximación a la discriminación histórica de las mujeres" hitzaldia Equiltera elkartearen eskutik.

M 7 (Euskalduna tabernan - 21:30): Emakumeen afaria.

M 8: 10:00 Nesken futbol partida Lekunberriko futbol zelaietan.
11:00 Nesken Pala partidak Lekunberriko frontoian.
12:00 Manifestazioa Lekunberriko udaletxetik Larraungo udaletxera.
13:00 Bisita berezia Mendukilo Kobazulora.

M 13 (Jubilatuaren Egoitzan - 19:00): Zineforuma: Deniz Gamze Ergüven zuzendariaren "Mustang" filma.

M 15 (Alliko Akelarren - 18:00): Antzerkia: "Erradikalak ginen" Lanku Konpainiako Ane Labaka eta Beatriz Egizabalen eskutik.

M 17 (Lekunberriko Kattagorri Elkarte): Pintxo dastaketa.

M 18 (Lekunberriko udaletxean - 19:00): Hitzaldia: "Zaintza etikak: nola zaintzen dugu elkar?" EHUko irakasleak diren Naiara Gorroño eta Izaro Gorostidiren eskutik.

M 27 (Kantinan - 23:00): Gintonada!! Feminismoa LGTBI+ ikuspegitik.

ESKUALDEA

Santa eskean kantari...

Otsaileko lehen asteartearekin Santa Ageda bezpera ospatu zen gurean. Ibarberri ikastetxeko ikasleak Lekunberriko kaleetan zehar aritu ziren koplak kantari eta ondoren Jubilatuetan txokolate beroa hartu zuten. Ondoren, ohitura den moduan, Larraungo pare bat herritan izan ziren. Aurten Allira eta Astitzera joan ziren. Araitz eta Betelun aldia, herritarrek Araxes ikastetxeko ikasleekin batera Lezaetan aritu ziren kantuan. 70 lagun inguru elkartu ziren eta, ondoren, Azpirotzen askari goxo baten bueltan elkartu ziren. Giroa alaitzen ibili ziren Aitor Irastorza eta Joana Ziganda bertsolariak eta baita Izan Zubillaga eta Idoia Garmendia trikitilariak ere. Antolatzailek eskerrak eman nahi dizkiete Lezaetako herritarrei, Aralar Musika Eskolari eta Araxes Guraso Elkartearen ordezkariak eskainitako laguntzagatik.




Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

IHAUTERIAK



Gorritin eta Azpirotz-Lezaetan ihoteak berreskuratu dituzte aurten

Gorritiarrek eta Azpirotz nahiz Lezaetako herritarrek hamarkadak zera-matzaten ihoteak ospatu gabe. Azpirotz-Lezaetan 60 urte inguru eta Gorritin ere beste horrenbeste. Aurten ordea, neguko solstizioa behar bezala ospatu zuten. Otsaileko azken larunbatean Arruiztarrek urteroko puska-bil-tza egiten zuten bitartean Gorritiko Berekoetxea jatetxean 80 lagun elkartu ziren mozorroturik bazkari baten bueltan. Aurrez, Kakamomo panpina prestatu zuten eta iluntzean herriko plazan dantza eta bertso artean erre zuten. Herriko haur zein helduek parte hartu zuten eta zalantzarik gabe, datozen urteetan berreskuratu berri duten tradizioari euste-ko gogoz. Azpiroztarrak berriz, goizean Lezaetara jaitsi ziren kalejiran eta bazkari eder baten ondotik, mozorro lehiaketa eta txokolatada egin zuten. Horra hor joan den hilabetean izandako ihoteen zenbait argazki! Eta gogoratu martxoaren 7an Gaintzakoekin agur esanen diogula ihauteri garaia.



Aurtengo ihoteetako argazkiak www.mailope.eus atarian ikusgai!

ALDATZ



AZPIROTZ



ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Gamendia 629 350 099
Arbe-Atallu

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BARAIBAR



GORRITI



BETELU



LEKUNBERRI



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

“Gauza asko ikasteko eta bizitzeko aukera paregabea da Indiara etortzea”

Munduko herrialde populatuenetik iritsi zaigu Josu Betelu lekunberriarren berri. Tamil Nadu estatuko Karur hirian dabil lanean, Indiaren hegoaldean kokaturik dagoen 100.000 inguruko hiria da eta lan kontuengatik joan da bertara. Hona hemen distantzian egindako elkarrizketaxoa.

Nolatan zaude gaur egun Indian?

Nire enpresan, Indian parke eoliko baten eraikuntzan parte hartzeko aukera suertatu zen eta nire burua aurkeztu nuen hona etortzeko. Beticanik nebilen munduko txoko honetan denboraldi bat igarotzeko goiarekin eta ez nuen bitan pentsatu.

Zenbat denborarako joan zara?

Hasiera batean 2019 urtea hemen igarotzeko ideiarekin etorri nintzen baino proiektuaren gorabeherak direla eta hemendik ibiliko naiz 2020ko udara arte.

Nolakoa da zure egunerokoa bertan?

Astean zehar goizean goiz lanera joaten naiz. Parke eolikoan igarotzen dut egun osoa eta ilunabarrean berriro bueltatzen naiz etxera. Tarteka lankideekin zeozer hartu eta afaltzen gelditzen naiz eta beste batzuetan kirola egin eta etxera joaten naiz. Asteburuak berriz, inguruko lekuak ezagutzeko edo bidaiaren bat egiteko aprobetxatzen ditut. Adibidez, Malasia eta Singapur bisitatzeko aukera izan dut.

Nolakoa da bertako gizartea?

Indiaren zonalde honetan, erlijioak indar asko dauka eta horrek eragin zuzena du bertako bizimoduan: jazteko modu oso tradizionala, gizonen eta emakumeen rola gizartean, jana-

“Asko gustatzen zaie beste herrialdeetan nola bizi garen jakitea”

rian (ez dute txerri eta behi haragia jaten), alkohola edatea gaizki ikusia dago... gizarte oso klasista da eta gizabanako bakoitzaren etorkizuna markatuta dago jaioz geroztik: unibertsitatea, lana, zeinekin ezkondu behar diren... Emakumeek ez dute lan egiteko aukerarik, senarraren baimenik gabe.

Bestalde, jendea oso jatorra da eta asko gustatzen zaie beste herrialdeetan nola bizi garen jakitea. Beti daude prest laguntzeko.

Zer da gehien harritu zaituena?

Gehien bat zaborrarekin daukaten arazoa. Kaleak eta errekak oso zikin daude Indiako hiri gehienetan, batez ere New Delhin. Hiri honetan kutsadura ikaragarria da. Bestalde, gidatzeko daukaten modua oso arriskutsua da, kanpotarrei ez digute kotxea gidatzen uzten.

Janariarekin zer moduz moldatzen zara?

Orokorrean ongi. Alde batetik espezie askoko janaria gustatzen zaie indiarrei eta egunero jateko ez dira plater gomendagarriak. Bestalde, kanpotarrentzat badago aukera haragia eta beste produktu batzuk eskuratzeko. Nik denetarik jateko ez daukat arazorik.

Eta hizkuntzarekin?

Bertako hizkuntza Tamil-a da. Lanean jende gehienak ingelera ezagutzen du eta ni hizkuntza honen bidez komunikatzen naiz. Hala ere zenbait hitz Tamileraz egiteko gai naiz, eta asko eskertzen dute hemengo bizilagunek.



Euskaldunik topatu duzu bertan?

Indiako zonalde honetan, ez dut inor topatu eta normala da, ez delako kanpotar asko ikusten orokorrean. Baina bai topatu ditudala Indiako beste zonalde turistagoko batzuetan: New Delhin, Agran...

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Mentalitate irekiarekin etortzea. India oso herrialde ezberdina dela Europarekin alderatuta eta han egiten den bizimodua hemen ez dela posible. Baina beste gauza asko ikasteko eta bizitzeko aukera paregabea da hona etortzea.

Eta zer ez zenioke gomendatuko?

Jendeari errespetua ez galtzea. Munduko beste leku askotan bezala, bertako kultura eta bizitzeko modua ulertu eta ahal den moduan horretara moldatzea gomendatuko nioke. Hemen pobrezia asko dago, emakumeen eskubideak oso urratuta daude, erlijioak jendea kontrolaturik dauka... Pixkanaka badirudi gauzak hobetzen eta bertako jendeak mentalitatea aldatzen dijoala.

**Etxekoei, lagunei edo hemen da-
goen inori mezuren bat bidali nahi
badiozu, aprobetxatu!**

Besarkada handi bat nire familia guztiari eta eskuminak Lekunberri, Larraun eta Araiz-Beteluko lagunei. Askotatzen ditula faltan, baina oso ondo nagoela hemen, asko ikasten eta lehenago edo beranduago bueltan egongo naizela!



*“Erlijioak indar handia du
eta horrek eragin zuzena
dauka bertako bizimoduan”*



Tira eta tira, Beteluko plazatik mundu mailara

Letterkenyen, Irlandako iparraldean, jokatu da aurten Sokatirako Munduko Txapelketa eta bertan izan dira Mattie Garaikoetxea eta Alaitz Olano beteluarrek.

Araxes Herri Kirol Taldean hasi zineten zuek...

Mattie: Bai, 2010ean hamar bat lagun hasi ginen. Gu izan ginen Araxes Herri Kirol Klubeko lehen taldea, baina bagenekien gure gurasoetako batzuk herri kiroletan ibiliak zirela; hau da, lehen ibarrean izan bazela herri kirol taldea.

Alaitz: Araxes Herri Kirol Taldea Bete-lun sortu zen Unai Ijurkoren eskutik. Astean behin entrenatzen ginen eta hasiera batean, betiko konbinatuan aritzen ginen (lokoxtetan, txingetan, zakuan eta korrikan). Gure helburua egin beharreko lan bakoitza ahalik eta denbora gutxienean egitea zen, bereziki Nafarroako Herri Kirol Txapelketan emaitzarik onena lortzeko. Infantiletara pasa ginenean konbinaturako trontzan ibiltzen ikasi behar izan genuen, eta horrekin batera



baita sokatiran ere. Egia esan, oroitzen oso onak ditut, entrenamenduetakoak, txapelketako urduritasun eta gogoak, autobuseko bidaiak eta batez ere taldean sortu genuen giroa. Azken finean, esango nuke hori guztia izan dela herri kirol munduan, eta zehazki sokatiran sartzeko nire arrazoia.

Gaur egun jada ez duzue Araxesen jarraitzen? Zein talderekin zabilzate?

Mattie: Ez dugu aktiboki jarraitzen, kanpoan ikasten dugulako eta hemen ez dagoelako helduen talderik. Ni Iruñean nabil eta jada hirugarren urtea dut hau Antsoingo taldearekin.

Alaitz: Ni duela bi urte etorri nin-

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ

Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa

948604607

tzen Donostiara eta argi nuen Herri Kirol munduan jarraitu nahi nuela, horregatik saltseatzen hasi nintzen eta Ibarako Sokatira taldearekin jarri nintzen harremanetan. Lehenengo momentutik oso harrera ona egin zidaten eta orain arte hortxe jarraitzen dut.

Sokতিরাকo Munduko Txapelketan parte hartu berri duzue... Zer moduzko esperientzia izan da?

Mattie: Guztira lau egun izan ziren. Lehenengo bi egunetan klubaren arteko txapelketak jokatu ziren, kategoriaz ezberdinetan eta, hurrengo bi egunetan berriz, nazioen artekoak. Ni 600 kilogramoko kategorian absolutuan ibili nintzen Antsoaingo taldearekin eta horrez gain entrenatzaile eta botilero lanetan ere aritu nintzen. Ez genuen ezer irabazi, baina bizitako esperientzia izugarria izan da niretzat. Taldekideen artean nahiz beste euskal taldeekin dagoen elkartasuna, Taiwan eta Japoniarren aurka tiratu izana, teknika ezberdinak ikusi izana eta esperientzia herriko pertsona batekin bizi izana kristorena da. Ez nuen espero inoiz horrelakorik bizitzea, egia esan zorte oneko sentitzen naiz.

Alaitz: Nire kasuan, klub bezala neskekin 540 eta 500 kiloko kategorietan ibili naiz, Ibarrarekin mistoan parte hartu dut eta nazioen artekoetan tiratzeko aukera ere izan dut sub23 mailan, bai mistoan eta bai nesketan ere. Klub bezala ez dugu dominarik lortu, izan ere, nesketan nahiko talde berria gara eta esan beharra dago bai mundu mailan eta bai Euskal Herrian maila gero eta handiagoa dela. Hala ere, ez gara gaizki ibili eta ikaragarri disfrutatu eta ikasi dugu elkarrekin. Beraz, hori izan da niretzako saririk handiena. Nazioarteko sub23 kategorian berriz, mistoan eta nesketan zilarrezko bi domina eskuratu ditugu. Oraindik ez dut sinisten Mundialetan parte hartu izana, oso esperientzia aberasgarria izan da eta gainera, Mattierekin batera bizitzea berezia izan da [Kar-kar].

Herri kirolen urrezko garaia aspaldi izan zen. Gaur egun zein egoeratan dagoela uste duzue?

Mattie: Euskal Herrian oraindik ere



Esker oneko hitzak...

Aukera hau aprobetxatu nahiko genuke biok herri kirolen alde lanean aritzen diren pertsona horiei eskertzeko, hau dena etengabe hauspotzen jarraitzen dutelako. Batetik Unai Ijurko, gure betiko entrenatzaileari, berari esker ikasi baitugu geureak diren kirol joko hauez gozatzen, beti ere giro onean eta inolako lehiakortasunik gabe. Bestetik gurasoei, haurrak ginenetik talde sentimendu hori mantentzen digutelako eta beti animatu izan gaituztelako, irabazi edo galdu.

Eta baita lehen herri kiroletan aritzen ziren horiei ere, laguntzeko prest baitaude beti; horien artean Estangari, bera izan baitzen 9-10 urte genituenean haurren herri kirol taldea osatzeko proposamena egin zuena. Horiei denei esker bizi izan ahal dugu aste laburreko esperientzia hau, baina denboran bukatzen ez den esperientzia onena taldea handitzen eta indartzen doala ikustea da.



badira nahikoa talde sokatira txapelketa "dexenteak" egiteko, baina egia da lehen talde gehiago izaten zirela, eta aspaldi honetan ia ez direla talde berriak sortu edo lehengoak suspertu. Eta etorkizunak beldurra ematen duela ezin uka. Europako herrialdeetan esango nuke egoera antzekoa dela prestigio aldetik, baina Asiako herrialdeetan (Txina, Taiwan...) nabari da afizio handiagoa dutela, baita prestakuntza eta baliabide gehiago ere. Izatez, haietako talde batzuk teknifikazio eskoletakoak dira, eta horren ondorio dira adibidez emakumezko txinatarren urrezko dominak nazioarteko kategorietan.

Alaitz: Nire ustez, Nafarroako Haurren Herri Kirol txapelketan aritzen diren talde gehiago sortu dira. Sokatira, mutilen kasuan, antzeko taldeak irauten dutela esango nuke. Emakumezkoetan aldiz, gero eta emakume talde gehiagok parte hartzen dute txapelketetan eta gainera, urtetik urtera maila hobetzen doa. Beraz, emakumeak ahalduzko kirol proposa dela iruditzen zait. Ea datozen urteetan horrela mantentzen den!

Herri kirolen artean sokatira duze gustukoen edo bada besterik?

Mattie: Badira probatu nahi nituzkeen lan gehiago, baina pertsonalki soka oso gustuko dut. Konbinadak ere aipatu beharra daukat, edozein lanekin, baina beti ere talde lana iruditzen zait erakargarriena.

Alaitz: Niri orokorrean Herri Kirol



modalitate gehienak gustatzen zaizkit, ziurrenik txikitatik lan ezberdinetan aritu naizelako, baina lastoa adibidez gustura probatuko nuke. Baina nik ere soka dut gustukoena, kirolak berak, entrenamenduak, txapelketak eta talde giroak engantxatu naudelako.

Nola prestatu zarete munduko txapelketa horretan parte hartzeko?

Mattie: Lana eta orduak dira, baina ez dut esfortzu moduan hartu, gustuko tokian aldaparik ez, esaten den bezala. Nire kasuan astean bizpahiru entrenamendu, Nafarroa eta Euskal Herriko txapelketak asteburu askotan, eta horrez gain lan fisiko pertsonala. Hala ere, esan beharra dago gehien txapelketetan ikasten dela, izan ere Euskal Herrian maila oso ona dago.

Alaitz: Guk astean bi orduko bi

entrenamendu egiten ditugu polean. Bertan teknika eta fisikoa eta burua lantzen dugu. Horri ia astebururoko jardunaldiak gehitzen zaizkio. Azken finean, Mattiek dion bezala entrenamendurik onenak txapelketak dira.

Eta orain zer? Baduzue begi bistan beste txapelketarik?

Mattie: Orain urtea amaitzeko Nafarroako 4x4ko txapelketa izaten da, eta horrekin amaitzen dira aurtengo denboraldiko goma gaineko sokatarako lanak.

Alaitz: Ibarrako taldearekin Getxoko lur gaineko Sokatira txapelketarako kategorian mistoan taldea ateratzeko asmoa dugu. Eta aurtengo denboraldiak asko motibatu nauenez eta motza egin zaidanez, lur gainean hasteko gogotsu nago.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

GETXOKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

GUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefona: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



Jokin Mitxelorena Eskamendi
 Martxoaren 3an 6 urte beteko ditu gure mutilak.
 Ongi pasa zure egunean eta muxu handi bat aita, ama eta Manexen partez.

Intza Etxarri Zubeldia
 Martxoaren 30ean, urte bat.
 Zorionak eta urte askoan!! Ongi pasa zure eguna.
 Familia guztiaren partetik!!




Jon Vicente Alkorta
 Martxoaren 4an, 7 urte.
 Zorionak, Jontxu!!! Mutiko handia egiten ari zara!!
 Muxu handi bat Laida, Luar, aitatxo eta amatxoren partetik!!



Luzia Peña
 Martxoaren 19an, 12 urte.
 Zorionak Artista!!! Maite zaitugu!!

Jexux Altuna
 Martxoaren 24an, 66 urte.
 Zorionak Attuna! Ea seitzegon horren majo urte askoan!
 Ongi-ongi pasa zore eune!
 Zorionak eta muxu handiet etxekoan partez!!



Aner Otermin Iriarte (Arribe)
 Martxoaren 7an, 5 urte.
 Zorionak pottoko!!! Jada 5 urte etxeko txoko guztiak alaitzen.
 Segi horrela izaten maitia.
 Muxu pottolo bat Elene, Danel, Erik eta Arribeko familiaren partez.



Bittor Esnaola Sotil
 Martxoaren 12an, 6 urte.
 Zorionak Bittor!!
 Oso ongi pasa zure urtebetetze egunean eta segi beti bezain alai.
 Muxu handi bat etxekoan partez.



Uxue Jauregi Olano
 Martxoaren 6an, 17 urte.
 Urte askotako bihotza, jarraitu orain bezain jatorra eta alaia izaten!
 Muxu handi bat.



Unai Amoztegui Goikoetxea
 Martxoaren 12an, 4 urte.
 Zorionak pottoko etxeko guztien partez. Ongi pasa eta muxu pile!

Iker Hernandorena Irisarri
 Martxoaren 24an, 12 urte.
 Zorionak Iker!
 Muxu handi bat etxekoan partez eta ondo pasa!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Auzolanen urtea Errazkinen

Zein proiektu ditu orain esku artean Errazkingo Kontzejuak?

Basoberritze lanetan gabiltza. Araiz-taran, Ernape eta Usanmalloa para-jeetan Haritz amerikarra eta Crypt-omeria deitzen den epe motzeko landarea sartzen gabiltza, lau edo bost hamarkada barru irabazi batzuk izan ditzagun. Bestalde, berritze lanak behar dituzten bi pista dauzka-gu, zenbait diru-laguntza eskatu di-tugu horretarako.

Baina, berritasunik handiena auzolanak izanen dira aurten...

Bai. Auzolanak indartu nahiko genituzke. Urtean sistematikoki auzolan bat egitetik bi egitera pasako gara. Orain arte, herrian auzolan bakarra egiten zen eta ordaindua izaten zen. Aurten, herri batzarrean, gutxieneko mantenu lanetarako bi auzolan egi-tea erabaki zen.

Zeintzuk izaten dira lan horiek?

Bide bazterrak garbitu, ur-eba-kiak saneatu, plazako zuhaitzen kimaketa lanak, plaza eta frontoi inguruak garbitu, herriari ura hornitzen dioten iturburuak garbiket-ak... Horiek izaten dira udazkeneko auzolanean egin ohi ditugun lanak. Udaberrian eginen dugun auzolane-rako berriz, parkea eta esertzeko di-tugun bankuak bernizatu, ur-deposi-tuaren inguruan zuhaitzak moztu eta txukundu, Gaintzenea azpiko hodite-ria konpondu eta beste hainbat lan aurreikusten ditugu.

“Konpostagailuen inguruan egindako proposamenak harrera ona izan du herrian”

Eta lortzen duzue jendeak parte hartzea?

Bai, hamabost bat lagun elkartzen gara. Orain arte gutxienez etxe bakoitzeko pertsona bat etorri izan da eta ordaindu egiten zitzaion hurbiltzen zen herritarrari. Baina udazkeneko auzolanaren ondotik ordaintzen hasi ginenean ohartu ginen jende askok ez zuela dirurik onartu nahi eta herri batzarrean ordaindu beharrean auzolanen ondotik egin ohi den merendu-afaria Kontzejuaren kontu egitea proposatu genuen. Herritarrak ados agertu ziren eta hala eginen dugu.

Aurki auzo konpostagailua ere izanen duzue, ezta?

Iribas eta Baraibarrekin batera, Erraz-kin izan da orain arte eskualdean konpost gehien egiten den herria eta denok egiten hasteko saiakera egiten ari gara. Lanketa bat egin da herrian eta erabaki dugu gure kasuan egokie-na herri erdigunean konpostagailu komunitarioa jartzea eta erdigunearen goialdean nahiz beheko etxee-tan bizi direnentzat konpostagailu partikularrak jartzea dela egokiena. Harrera ona izan du proposamenak

herrian. Konpostagailu partikularrak banatu dira eta dagoeneko konposta egiten hasi dira eta konpostagailu ko-munitarioa noiz iritsiko zain gaude. Ho-netaz gain, tailer pare bat ere eskainiko dira herrian, organikoa ez ezik honda-kin mota guztiak kudeatzerakoan sortu ohi diren zalantzak argitzeko.

Suteen aurkako neurriak hartu dituzue...

Bai. 2012an Otxokiñenean izandako sutearen ondorioz, herriko ur-hargune guztiak geolokalizatu eta berrikusi ziren eta kokapena bidali zitzaion dagokigun suhiltzaileen parkeari. Gainera, etxe guz-tiei ere kokapen horien plano eta ur tutuen kutxaren giltza banatu genien. Eta bestalde, festetarako eszenatoki ber-ria izanen dugu. Araizko hainbat herrik eszenatokiaren beharra ere bazutenez denon erabilerarako eszenatoki bat erdi erosi eta erdi eraikiko dugu.

2017an berritu zenuten herriko elkartea. Zein izan da orain arteko balorazioa?

Oso positiboa. Urtean herri mailan hainbat ekitaldi antolatze-ko aukera ematen digu, Baba-jatea, Bazkideen festa, Gaztain-jatea... Asteburu asko-tan erabiltzen da elkartea. Herritarren eta batez ere belaunaldi ezberdinen arteko harremana errazten du. Orain herriko gazteei elkarteko bazkide egi-teko zein erraztasun eman aztertzen gabiltza.

Zein erronka dituzue etorkizunera begira?

Herri txiki guztiak bezala, bizirauteko eta bizitza emateko lan egitea. Batez ere, lurralde ezberdintasunak murriz-ten saiatu nahiko genuke, hau da, he-rri honetan bizi nahi duena ez dadila baztertua sentitu zerbitzu nagusiak herri handietan zentralizaturik ditue-lako. Eta horretarako, ea Udalarekin batera, mugikortasun planak, inter-neta bezalako oinarrizko zerbitzuak eta gero etxebizitzarako erraztasunak lantzen ditugun.





Galtzinlabea eta Belutako artzain-bidea berreskuratzen

Auzolanen urtea izanen dute aurten errazkindarrek. Izan ere, ohiko lanetarako auzolanez gain, gutxienez beste pare bat deituko baititu Kontzejuak. Helburu berezia izanen dute ordea, herriko ondarea berreskuratzearekin lotuta egonen baitira. 2018ko elurtearen ondotik itxita gelditu zen Baraibar eta Errazkin lotzen dituen bide zaharra. Udaberrian Iturraskarriko langileen laguntzarekin garbituko da. Juanjo Zubieta (Iturraskarri): "Errazkingo herri-tik Belutara doan artzain-bidea da. Hiru kilometro inguru dauzka. Garai batean artaldeekin erabiltzen zen bidea da, baina urteen poderioz ixten joan da. Belar eta garo asko dago eta zenbait puntutan hurritzak erorita daude. Lana izanen dugu garbitzen, baina oso bide polita da, bi iturri dauzka eta bai Malloen aldera eta baita Larraun aldera ere izugarritzko bistak eskaintzen ditu. Asmoa da etorkizunean miradore moduko bat egin ahal izatea goialdean". Horrez gain, Ondare Kultur Taldearekin batera, Eraso txiki azpian dagoen galtzinlabe zaharra berreskuratuko dute errazkindarrek. Herriko adinduenek gogoan dute han bazirela pare bat pareta, Auztegioko Tiburtziok motorra beti han gordetzen omen zuela ere bai, baina orain gutxi egiaztatu dute bertan galtzinlabe bat dutela. Juanjo: "Lurrez, harriz eta zaborrez beteta dago. Apirila aldera hori garbituko dugu eta ondoren ikusi beharko da zein egoeratan dagoen".

Azken hauteskundeetan Kontzejua berritzea lortu zuten Errazkinen eta aurrepegi berriekin gainera. Josu Oreja, Eneko Saralegi, Ion Ezkurdia, Edurne Martini-korena eta Ikerne Ilarregi dabilta buru-belarri lanean. 67 biztanle ditu gaur egun erroldaturik eta Larraungo hainbat herritan bezala etxebizitza hutsak gelditzen badira ere, azken urteetan Gaintzenea, Gurutzea eta Apeztegia saldu dira.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTRETA HORTZ KLINIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

KONTU TXIKIAK

LAN-ESKAINZA

Aizarozko ostatua kudeatzeko eskaera epea zabaldu du Basaburuko Udalak. Interesa izanez gero jarri harremanetan: 948 503 035.

LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).



EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

MERAKTU TXIKIA

TAXILON  Lontxo Otamendi Artola
661 202 249 (9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**
URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

Antzonia  BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUK
JALMENTA ETA KONPONTZEA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

**AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -**
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun 

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Antigüedades Gastón
ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174
ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com
ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrarekin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurrira egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.
Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaeren alboan)
31892 Sarasa.


urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE 
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

 panaderia okindegia
GALBURUeco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

MARTXOA

07 | LEKUNBERRI:

Pilgrim's taldearen kontzertua Kantinan, 00:30ean. Sarrera 5 eurotan.

13 | LEKUNBERRI:

Larraungo Kinto Eguna antolatzeko bilera irekia, arratsaldeko 19:00etan, Kantinan.

14 | LEKUNBERRI:

Botxorno taldearen kontzertua Kantinan, 18:30ean. Sarrera 5 eurotan.

21 | LEKUNBERRI:

Legoa. Haurren lasterketa 10:30ean eta proba nagusia 12:30ean.

PRINTZA

06 | ZINEMA: 22:00."FoxFire". Palomitak egongo dira eta baita hausnartzeko tartea ere!

07 | HITZALDIA: 19:00. Genero problematikaren gaindipenerako zenbait apunte I (Iruztungo Kultur Etxean).

08 | EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

13 | TAILERRA: 19:00. Harremanen inguruan hausnartzen (Iruztungo Kultur Etxean)

15 | HITZALDIA: 17:00. Genero problematikaren gaindipenerako zenbait apunte II

20 | HITZALDIA: 19:00. Formakuntza/Eztabaida: ideologiak. 21:00. Afari soziala.

22 | HITZALDIA: 17:30.PAH Iruñerria. Etxebizitza problematika: Hipotekak Eragindakoen Plataforma.

27 | EKOZINEMALDIA: 19:00. "Hondar 2050" - Ekologistak martxan.

29 | BILERA IREKIA: 17:00. Nondik norakoen azalpena, proposamenak...

30 | LIBURU AURKEZPENA: 19:00. "El Narco-oasis Vasco", Ahoztar Zelaieta.

GAINTZEKO INAUTERIAK

07 | GAIINTZA:

11:00 - Puskabiltza herrian zehar trikitilarietz lagundurik.

19:00 - Poteo herrikoia.

21:00 - Afaria Sonbelu elkartean.

Ondoren DJ Oixani.



HERRIEN ARTEKO ELKARTASUN HAIZEAK

12 | LEKUNBERRI:

18:30ean Perutik elkartearen aurkezpena.

14 | UITZI:

Elkartean, 18:00etan Herri Sahararraren inguruko bideoforuma: "Hijos de las nubes" dokumentala. Bitartean txikientzat Henna tailerra.

19:30ean Kus-kus tailerra. Ondoren denok apaltzera.

20 | LEKUNBERRI:

19:00etan, Plazaola geltokian hitzaldia. Mugak zabalduz: Errefuxiatu eta migranteen egoera Europan.

ANTOLATZAILEA: Ontza Elkarte.

LAGUNTZAILEAK: Larraungo Udala, Merkualde Elkarte, Saharako Ordezkaritza Nafarroan.



Araitz-Betelu kantari

Martxoak 14, larunbata
12tan Beteluko plazatik aterata, herrian zehar.



Ondoren bazkaria Beteluko Zigari elkartean

Apuntatzeko martxoak 10a baino lehen.
650 383 459 (Yolanda) 609 666 659 (Oihana)